

Gipuzkoako Abusu Sexualak Jasandakoen Elkarte (GASJE)  
CIF: G-20949194  
CRAJ Lokala, Anoeta Pasealekua 28, 20014 Donostia  
Mugikorra: 634896232  
Emaila: gasje@gasje.org

Donostian, 2009 Azaroak 30

Jaun/Andere agurgarriak:

Eskutitz honen helburua GASJEk abenduan zehar antolatzen dituen bi ekintzen berri ematea da:

- **Abenduak 11**, ostirala, 19:00etan, Ernest Lluch-en *Haurtzaroan Jasandako Sexu-Abusuei buruz hitzaldi-solasaldia*.
- **Abenduak 12**, larunbata, goizeko 10:00etatik 13:30arte Craj lokaletan, *Sexu Abusuen Prebentzioari buruzko tailerra*.

Bi ekintzak, Vicki Bernadet-en ardurapean izango dira.

Vicki Bernadet-ek, 1997an Fada Erakundea sortu zuen eta bere helburua umeen sexu-abusuei buruz aholkua eta prebentzioa bultzatzea zen. 2006. urtean erakunde hau, estatu mailara zabaldu zen Vicki Bernadet Fundazioa izenpean. Erakunde honen lana haurren sexu abusuen arloan datza: Arreta, hedatzea, formakuntza eta sensibilizazioa ([www.fbernadet.org](http://www.fbernadet.org)).

2001 urtetik aurrera, Vickik lehendakari-sortzaile gisa honako ekintzak egiten ditu: erakundearen prestakuntzaz arduratzen da, administrazio publikoetan erakundea errepresentatzen du, komunikabideekin hizketakidea eta dibulgazio lanak ere egiten ditu beste ekintza batzuen artean.

Abenduan egingo diren bi ekintza hauek dohainik izango dira. Tailerrean parte hartzeko izena ematea eskatzen da, eskutitz honen goikaldean dagoen telefono mugikorrera deituaz.

Espero dugu ekintza hauek zuen interesa sortaraziko dutela eta zuek ere bertan egotea gustatuko litzaiguke.

Besterik gabe, agur bero bat,